

## **Bilboko Portuko Agintaritzaren adierazpena**

Bilboko Portuko Agintaritzak harriduraz eta haserrez irakurri du komunikabide baten (El Correon) izenburu honekin agertutako berria: “Alarma Bilboko Portuan gaur gauean heldu den merkantzia-ontziagatik, bertan koronobirusa aurkitu baita”.

Lehenengo eta behin, erakunde honek adierazi nahi du ez duela sekula ere jazoera honetaz informatu, komunikabideak hori dioen arren, eta komunikabide hau ez dela harremanetan jarri erakunde honetako iturri ofizialekin.

Bigarrenez, eta garrantzitsuena dena, berri hau ez da zuzena eta, ez du esan inolako osasun agintarik, ez kontsignatariak, ez itsasontziko tripulazioak, jazoera hori egia denik.

Portuko Agintaritzak komunikabideei mesedez eskatzen die beren berriak eta alarma sor dezaketen informazioak zabaldu aurretik iturri ofizialekin egiaztazeko, eta are gehiago krisi une honetan.

***Bilbon, 2020ko martxoaren 31n***